

# ANIMALIEN EGUBERRI MAGIKOA



RITA & LUCA FILMS-EK AURKEZUA  
**JARDUEREN  
DOSIERRA**  
Dosier honen jabea:  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

GIZA ESKUBIDEEN  
ZINEMALDIA  
FESTIVAL DE CINE  
Y DERECHOS HUMANOS

RITA & LUCA



FILMS



# GABONETAKO IPUIN... BASATIAK!

## BIZAR ZURIAREN BIDAIA



Gertu dira Gabonak eta aztoramena handitzen ari dira iparraldean: negu betean animalia guztiak ari dira prestatzen une magiko hau bizitzeko... Baina hondamena dabil zelatan! Bizarzuriren lera arriskuan dago eta azeriak eta zikoinak indarrak batu beharko dituzte hura babesteko. Bitartean, txita batek errespetua jartzen ikasiko du oilategiko festa handia salbatzeko. Eta, baso elurtu bateñ bihotzetik etorrira, katamotz gazte batek erlojupeko bidaia bati ekingo dio, mendi tontorrean naturaren ikuskizun zoragarria ikusteko. Izan ere, mundu osoan, Gabonek sorpresa zoragarriak eskaintzen dizkigüte...

## TXITEN LEHENENGO GABONAK



*Animalien eguberri magikoa* filmak bost istorio biltzen ditu (interludioekin) eta sei artistak idatzi eta zuzendu dituzte, haurrentzako nazioarteko animazioan gailentzen hasitakoek. Haiek Frantzia, Japonia, Alemanian, Errusian, Turkian eta Ipar Handian izan dituzten esperientzietan oinarritzen da istorio bakoitza.

## GABONETAKO AZKEN ZUHAITZA



Zuzendariak Gabonei buruzko beren ikuspegia partekatzen dute, tradizioa eta modernitatea uztartzen dituzten ipuin bizidunen bidez, eta grabatua eta akuarela bezalako artisauteknikak gogora ekartzen dituen 2D estiloaz baliatuta. Istorioak musika-interludio txikiekin eta grafikoekin elkar lotzen dira. Hauek sormenez eta magiaz betetako zubi-lana egiten dute kapituluaren artean, eta erritmoa eta batasuna ematen diote film osoari.

## TANUKI ETA GABONETAKO SORPRESA



Bost abentura dira, poesiaz beteak neguaren etorrera eta Gabonak ospatzeko. Bertan, protagonistek, hau da, animaliek, adiskidetasunaren eta elkarri laguntzearen balioa eta inguratzen dituen naturaren edertasuna deskubrituko dituzte.

## ANIMALIEN OSPAKIZUN HANDIA



# GABONEN IZAERA

Gaur egun, Eguberri eguna kristau-jaieguna da, Jesus haurren jaiotza ospatzeko. Hala ere, bere jatorria ez da erlijiosoa, jendeak antzinatek ospatzen baitzuen jaiegun hau. Zehazki, urteko gaurik luzeena zelako ospatzen zuten, eta une horretatik aurrera egunak gero eta luzeagoak izango zirelako, eta beraz gero eta argitsuagoak. Ospatzeko, suak eta kandelak pizten ziren, eta pinua eta gorostia bezalako zuhaitzen adarrez apaintzen ziren etxeak.

Film honek Gabonak basoko animalien begiradaren bitartez ezagutera gonbidatzen gaitu. Nola ospatzen dituzte jai hauek? Zer ikasbide eman ahal digute adiskidetasunari eta naturari buruz? Proba ezazu zuk ikasitakoa filmari buruzko test honekin!



**1** Zein bi animaliek laguntzen diote Bizarzuriri bere bidaian?

- A. Txita batek eta oilar batek.
- B. Erbinude batek eta kaio batek.
- C. Balea batek eta izurde batek.
- D. Azeri batek eta zikoina batek.



**2** Oilarrak zergatik ezin du oilategia zuzendu?

- A. Nekatuta dagoelako.
- B. Gaixo dagoelako.
- C. Haserre dagoelako.
- D. Txitak bere lekua hartu diolako.



**3** Anaya txikiak ez du Gabonetako zuhaitzik, zer erabiltzen du horren ordez?

- A. Landare bat.
- B. Armairu bat.
- C. Aulki bat.
- D. Lanpara bat.



**4** Zer jaten dute askaltzeko bi anaiak eta basoko neskato bitxiak?

- A. Txokolate-pipitadun galletak.
- B. Txokolate beroa azukre-hodeiarekin.
- C. Txokolatezko turroia.
- D. Perretxiko-krema gazta urtuarekin.

**5** Zer ikuskizun natural izango dute animaliek mendi gailurrean?

- A. Gaueko zeruko aurora borealak.
- B. Ozar-izarra.
- C. Basoaren ikuspegi panoramikoak.
- D. Elurra erortzen.



**7** Nola ospatzen dituzte Gabonak animaliek?

- A. Ama Naturaz gozatzen.
- B. Elkarri laguntzen.
- C. Elkarrekin festa bat ospatzen.
- D. Guztiak dira zuzenak.

Erantzuna: 1d, 2b, 3c, 4b, 5a, 6c, 7d

# A ZE HONDAMENA!

Lehen istorio honetan zikoina batek bere taldea galtzen du, neguko paisaiaren edertasunak distrahituta. Orientatzeko eta bere mapari lasai begiratzeko, izotz-zati batean lur hartzea erabakitzen du, Bizarzuri bizi den etxolaren ondoan.

Hotz handiagatik doministiku egiten duenean, Bizarzuri esnatzeaz gain, izotz-zatia apurtu eta itsaso zabalera lerratzen du... Hau hondamena! Abendualdiko egutegiaren arabera, abenduaren 22an gaude, eta hiru egun baino ez dira falta Eguberri egunerako!

1

Nola konpontzen dute pertsonaiek arazoa?

Markatu Bizarzuri, lera eta bere lagunak salbatzea lortzen duen irtenbidea!



2

Kontakizunek hasiera bat (nola hasten den), gatazka bat (gertatzen den arazoa) eta amaiera bat (nola bukatzen den) izaten dituzte. Jakingo zenuke hiru zati hauek identifikatzen istorio honetan?

Moztu ondoko irudi hauek eta itsatsi dagozkien espazioetan ordenan!

1  
HASIERA

2  
GATAZKA

3  
AMAIERA



1. erantzuna: C  
2. erantzuna: 1C, 2A, 3B

## BAZENEKIEN...?

Abendualdiko egutegiak XIX. mendearen amaieran du jatorria Alemanian, haurrei Eguberri eguna iristeko falta ziren egunak zenbatzen laguntzeko. Inprimatutako lehen egutegia, ordea, **Gerhard Lange**k sortu zuen. 1902an, editore aleman honek lehenengo egutegi leihoduna diseinatu zuen. Langen inspirazio-iturria txikitzen bere amak eskuz egindako egutegi bat izan zen, 24 goxoki josita zituena kartoi baten gainean. Urteekin ideiak aurrera egin zuen, eta txokolatinak eta bestelako gozokiak zeramatzaten egutegiak egiten hasi ziren, era guztietako sorspresak gordetzen dituzten oraingoetara iritsi arte. Horrela, magia eta eguneroko sorspresa txikiez betetako esperientzia bihurtu da Eguberri eguna iritsi arteko itxaronaldia.




# OILATEGIKO GABONAK



Oilategi honetako oilarra arduratzen da oiloez, haiek jaikitzen, jaten ematen eta arrautzak errun ditzaten, batez ere Gabon garaiko oporraldian. Baina oilarra hotzeriak jota gaixotu denez, laguntzeko gogo handia duen txita batek haren lana egitea erabakitzen du. Oiloek eta gainerako txitek laguntzen diote, batez ere bi txori beltz arrautza-saskia lapurtzen saiatzen direnean.

**Zergatik uste duzu txita hain ondo moldatzen dela oilategia zuzentzen? Nola ikasi du hori egiten? Zer egiten dute guztiek elkarrekin Gabon garaia iritsiera ospatzeko?**

Txitak gida bisual bat du oiloen egunerokoa nola antolatu jakiteko. Badakizu zer esan nahi duen sinbolo bakoitzak? Lotu itzazu txitaren ekintzekin!



1




2



3



A



B



C

Erantzuna: 1B, 2C, 3A

## BAZENEKIEN...?

Oilategia familia handi bat edo eskola bat bezalakoa da. Bertan, txitak bere lehen Gabonak eta bere lehen erantzukizun handia bizi ditu. Baina ez dago bakarrik: oiloek, beste txitek eta oilarrak lagundu eta erakusten diote. Esperientzia bat lehen aldiz bizi dugunean, normala da zalantzak izatea, baina gidatzen eta laguntzen dituzten pertsonak baditugu, dena errazago egiten da! Txita ondo moldatzen da, besteen laguntza ikusi, entzun eta onartzen duelako. **Eta zuk, gogoratzen duzu zerbait garrantzitsua egin edo bizi zenuen lehen aldia? Nola sentitu zinen? Nork lagundu zizun?**

# GABONETAKO AZKEN ZUHAITZA

Anya izeneko neskatok batek, etxe guztiek Gabonetako zuhaitz bat dutela ikusita, amari behin eta berriro eskatzen dio bat lortzeko. Oso lanpetuta dabilen arren, amak zuhaitzaren bila irtetea onartzen du azkenean. Baina basora iristen direnean, konturatzen dira zuhaitzik ez dagoela! Motzondoak baino ez daude nonahi.

Kaltetuenak animaliak dira, ia babesleku gabe geratu baitira eta Gabonak ere ezingo dituzte ospatu. Zorionez, zuhaitz txiki eta xume bat geratzen da oraindik. Azkena denez, animaliek babestu egingo dute kosta ahala kosta.

**Zer sentiarazten dizu basoa motzondoez beteta ikusteak? Zer gertatzen da Anya eta bere amak animaliekin topo egiten dutenean? Zergatik aldatu da iritziz Anya eta ez du zuhaitza moztu nahi?**

Lagundu basoko animaliei Gabonetako beren zuhaitz preziatua apaintzen! Marraztu edo itsatsi bolak, girlandak, begiztak, izarrak... edo zuk nahi duzuna. Erabili zure irudimena!



## BAZENEKIEN...?

Duela 500 urte baino gehiago, Alemanian, familiek neguan zuhaitz berdeak apaintzen zituzten, pinuak eta izeiak esaterako, bizitzaren eta eguraldi onaren etorreraren sinbolo zirelako. Pixkanaka tradizio hori zabaltzen joan zen, eta XIX. menderako familiak jada hasiak ziren etxe barruan Gabonetarako zuhaitz naturalak jartzen. Hala ere, ohitura hori ez zen jasangarria: urtero milioika zuhaitz mozten ziren egun batzuetarako bakarrik. Horrek baso-soiltzea eragin zuen: basoetan zuhaitzak urritzen hasi ziren eta animaliak beren babeslekuak galtzen, eta airea ez zen hain garbia. Zuhaitz artifizialei esker, ordea, orain Gabonetako zuhaitz bat eduki dezakegu etxean, bakar bat ere moztu gabe.

Anyaren istorioak gogorarazten digu zuhaitzak apaingarri bat baino askoz gehiago direla: izaki bizidunak dira, basoan gure etxean baino askoz ere baliotsuagoak.

# ANIMALIA MAGIKOA








Mendiko txabola batean gurasoekin bizi diren bi anaiak basoan gora eta behera pasatzen dute eguna igluak eraikitzen eta egurra biltzen. Mokadu bat jateko gelditzen direnean, mapatxe-txakur bat agertzen zaie jakin-minez, eta anaia txikiak galleta bat eskaintzen dio. Gero, animalia tranpa batean erortzen da eta anaiek erreskatatzea lortzen dute.

Jarraian, bi haurrak basoan galtzen dira elur-ekaitz baten ondorioz. Nahasmenaren eta beldurraren erdian, neska bitxi bat agertzen da. **Nor da neska misterioitsu hau?**

**Zer pista ematen zaizkigu eraldatu aurretik nor den asmatzeko?**



Filmeko mapatxe-txakurrak begiak itzaltso ditu, belarriak ilun, bularra argi eta buztana marradun. **Jakingo zenuke aurkitzen hauen guztien artean? Zenbat daude guztira?**



Erantzuna: C

## BAZENEKIEN...?


Istori honetako animalia ez da mapatxe arrunt bat, baizik eta mapatxe-txakur bat, tanuki izenez ere ezagutzen dena. Izena gorabehera, ez da benetan txakurra, azerien eta otsoen ahaide urruna baizik. Asiakoa da jatorriz, batez ere Japoniakoa, eta oso leku berezia du herri-kulturan eta folklore tradizionalean: antzinako kondairek diotenez, gizaki eta objektu bihur daitekeen izaki magikoa da, eta ahalmen hori erabiltzen du bihurrikeria txikiak egiteko eta pertsona onei laguntzeko.

**Zergatik uste duzu erabakitzen duela bi anaia protagonistei laguntzea?**

# NATURAREN IKUSKIZUNA

Azken istorioan, katamotz gazte batek basoko animaliei jarraitzen die, norantz doazen oso ondo ulertu gabe. Deskuidu batean atzean geratzen bada ere, berehala aurkitzen du norbait bidea berriro aurkitzen lagunduko diona. Bizitzan normala da noizean behin estropezu egitea, baina garrantzitsuena jaikitzen ikastea da eta, behar izanez gero, saialdian laguntza eskatzea. Hazi ahala, konturatzen gara zailtasun batzuk elurra eta ikuskizun naturalak bezain labur eta iheskorak direla: une batean agertu eta, hurrengoan, joan egiten dira.

**Zein kolore da nagusi film labur honetan? Zergatik ekartzen dizkigu kolore horrek gogora hotza eta negua? Eta zuk, zein koloretakoak esango zenuke direla udaberria, uda eta udazkena?**



Lagundu katamotz gazteari eta bere lagun berriei mendi tontorrera iristen ilundu eta ikuskizuna hasi aurretik.

## BAZENEKIEN...?

Aurora borealak kolore berde, arrosa, more eta urdineko argi-gortinak dira, gaueko zeruan dantzatzen direnak. Eguzkitik datozen partikulek lurreko atmosferako gasekin talka egiten dutenean eratzen dira, eta horrela sortzen dira koloretako argi ikusgarri hauek. Gehienbat planetako iparraldean ikusten dira, Norvegia, Islandia eta Kanada bezalako herrialdeetan. Haiek argi ikusteko, beharrezkoa da iluntasuna egotea (inguruan argi artifizialik gabe) eta zerua oskarbi egotea. Aukera gehiago dago haiek neguan ikusteko, gauak luzeagoak direlako. Horregatik, filmeko animaliak mendi elurtu baten gailurrera igotzen dira: leku garai baten bila dabilta, naturaren opari hau elkarrekin ikusteko.

**Eta zuk, bazenekien aurora borealak existitzen zirela? Ikusi duzu inoiz bat zuzenean edo iruditatzen?**

# ELKARREKIN BETI HOBETO

Filmak Gabonen ikuspegi fresko eta basatiago baten alde egiten du apustu eta, natura betean, animaliek neguko klimaren mirariak ezagutzera ematen dizkigute. Gabonetako ipuin bizidunen bilduma honek, ukitu bereizgarri bat badu ere, jai hauen baliorik tradizionalena ere azpimarratzen du: lagunartean ospatzearen poza.

Zer dira zuretzat Gabonak? Gabonetako zein ipuin ezagutzen dituzu? Zertan bereizten dira filmetakoetatik?

Margotu  
Bizarzuriren lera  
filmeko animalia  
protagonistekin!



## BAZENEKIEN...?

Gabonak era askotara bizi daitezke, baina guztietan lagunartea da garrantzitsua. Zuhaitza apaintzea, otordu on bat egitea, edo zeru izartsua ikustea garai honetako une bereziak dira, familiarekin eta gehien maite ditugunekin partekatzen ditugunak.

Eta zuk norekin ospatzen dituzu Gabonak? Zerk ezin du falta?

# ABESTEKO GABON-KANTA BAT

Eguberriak opariekin, dekorazioekin, argiekin, turroiekin... lotu ohi ditugu. Baina filmak gogorarazten digu Gabonak gauzak kontsumitzea baino askoz gehiago direla, eta oparirik onenetako bat Ama Naturak eskaintzen digula, bere paisaien edertasunarekin. Amäierako abestia irmo aldarrikatzen du: Gabonak elkarrekin bildu eta bizitzaren ikuskizuna ospatzeko jaiak dira!

Badakizu zertaz ari den filmeko abestia? Ikasi abestia eta harritu denak momentuko Gabon-kantarik moderno, polit eta ekologikoenarekin!



Stars in the night  
Follow the light  
Don't be afraid of cold

Look at your friends  
Life is a dance  
A circle of love and gold

See the gifts we share tonight  
Mother Nature is coming back

Take your flight!

**Hear the sound of winter  
All is good in Nature  
Keep the rhythm of Christmas  
Let's play and dance together**

The night sky is as bright as day  
Northern lights show us the way



Stars in the night  
Peace in your heart  
You'll never walk alone

Be with your friends  
Love has no end  
As we celebrate a milestone

See the gifts we share tonight  
Mother Nature is coming back

Take your flight!

**Hear the sound of winter  
All is good in Nature  
Keep the rhythm of Christmas  
Let's play and dance together**

**We all dance together!  
We are friends forever!**

Izarrak gauean,  
jarraitu argiari,  
hotzak ez zaitzala beldurtu.

Begiratu lagunei,  
dantza bat da bizitza,  
maitasunezko biribil magikoa.

Begiratu gaur gauean partekatzen ditugun opariak.  
Ama Natura gugana itzultzen da.

Ekin hegaldiari!

**Aditu neguaren hotsak,  
dena da ona naturan.  
Jarraitu Gabonetako erritmoari,  
jolas eta dantza egin dezagun elkarrekin.**

Gaueko zerua eguna bezain distiratsua da,  
iparraldeko argiek erakusten digute bidea.

Izarrak gauean,  
bakea bihotzean,  
ez zara inoiz bakarrik ibiliko.

Jarraitu lagunekin,  
maitasunak ez du azkenik,  
berdinik ez duen gertaera ospatzen dugulako.

Begiratu gaur gauean partekatzen ditugun opariak.  
Ama Natura gugana itzultzen da.

Ekin hegaldiari!

**Aditu neguaren hotsak,  
dena da ona naturan.  
Jarraitu Gabonetako erritmoari,  
jolas eta dantza egin dezagun elkarrekin.**

**Denok elkarrekin dantzan,  
lagunak betiko!**



ABESTU KANTA HAU  
KARAOKEAN BERTSIDO  
INSTRUMENTAL HONEKIN!



[www.ritalucafilms.com](http://www.ritalucafilms.com)



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

**GIZA ESKUBIDEEN  
ZINEMALDIA**

**FESTIVAL DE CINE  
Y DERECHOS HUMANOS**

Itzulpenak: **Bitez**